

BALIO PROPOSAMENA



Supermerkatuan orga astuna eraman ezin duten pertsonentzako automatikoa den bat sortzea beharrezkoa dela uste dugu; Adibidez, pertsona batek ume bat besoetan daramala ezin izango du orga eroso eraman. Horregatik, ideia ona iruditzen zaigu botoiak dituen orga bat asmatzea, nahi dugun norabidean noiznahi mugitzeko eta arazorik gabe desplazatu ahal izateko.

Gure orga automatiko berria, gure mundura etorri den asmakizun berrienetariko bat da, gailu honek zailtasunak duten pertsonendako izugarritzko aurrerapena da, adibidez pertsona nagusi batek agian ez du indar nahikorik guztiz beteriko orga bat bultzatzeko, horregatik supermerkatu bidai asko egin beharko ditu janaria apurnaka eramateko etxera.

Mundu osoan horrelako zailtasunak dituzten pertsona asko daudenez, uste dugu edozein supermerkatu edo produktu asko saltzen dituen enpresa batek erosiko digutela produktu hau. Guk uste dugu gure produktua lehiakideen produktuekin alderatuta arrakasta asko edukiko duela. Jende askok nahiko du abantaila hau erabiltzea.

